


Astekaria



elgoi

Uda aldera denok kirolari



SAMSUNG
T.V.C.5361-A 21" M/D
39.900
PTA. IVA BARNE

MILAR ARTEGI


IRUDIA - SOINUA

Eskaintza

Bereziak

IDEIARIK ONENAK UDA GUZTIZ GOZATZEKO

San Frantzisko, 40 • ELGOIBAR • Tel. (943) 74 06 87 • GIPIZKOA



ALUMINIOA - POLIURETANOA - PVCa

ARozTEGIA

FABRIKA: Olasope, 66
Olaso industrialdea
Tel.-Faxa: (943) 74 21 03

ERAKUSKETA: Santa Ana, 3
Tel. (943) 74 36 34
20870 ELGOIBAR



- **ATEAK eta LEIHOAK**

- **Aluminioa**
- **PVCa**
- **Poliuretanoa**
- **Egurra**
- **Egur Mistoa**

- **ARMAIRU ENPOTRATUAK**

- **DUTXARAKO MANPARAK**

- **PERTSIANAK**

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Euskara gaur egun

Euskararen egoera zein den aztertzeke asmoz, telebistan ikusi ditudan azken mahainguruak komentatu nahi nituzke. Bertako iritzi guztiak parekatu aurretik, ordea, nahita ezkoa da partaideen jatorria finkatu eta bakoitzaren inguruko hizkuntzen ezaguera eta erabilera zein den jakitea, beraien ideien nondik norakoa ulertu ahal izateko. Izan ere, familiar, auzoan, herrian arnasten dugunak gure jarrera erabat baldintzatzen du.

Alde horretatik, nabarmena da euskara hutsean aritzen direnean (ETB1) iritzi eremua estuagoa dela antzematea. Denak euskararen alde egoteaz gain, badirudi bada-goela hura bultzatzeko nahia, eta euskara euskal hiztunen arazo (diskriminazio) bezala enfokatzen da. ETB2an, aldiz, nire inguru eta ikuspuntuetatik urrun dauden pertsonak agertzen zirela dakidala, gogorra egiten zait euskararekiko grinarik eza zenbaterainokoa den ikustea. Euskal herritarren %94a omen dago "euskararen alde", baina %94 horren babesean zenbat ote dira alde, kontra ez egoteagatik daudenak? Zenbat "altxor bat da eta alde egon behar da" edo "batzuk hitzegiten dute, hitzegin dezatela" diotenak?


"Euskararekiko sentimendurik ez" horretan, iritzi tinko bezain antieuskaldunak entzun daitezke: historia era ezberdinetara interpreta daitekeela esan eta, euskal hizkuntza berez desagertzera kondenatua dagoela diotenak. Injustiziek desagertzeko prozesuan oso eragin txikia izan duten

arren, euskaltzaleak mendeku bila dihardutelarik. Problematikaren dimentsioaren ezjakintasun osoaz mintzaten direnen aldetik, euskarak boluntarioa izan behar lukeela bezalako astakeriak ere entzungai ditugu. Badira bestalde, "Euskaraz bizi" kanpainak harrizten dituenak, ironikoki galdetzen dutelarik euskal hizkuntza eza-gutzea elkarte bateko bazkide izatearen parekoa ote den. Adierazpen hauek oro har, euskal kulturaren eskubideak arbuizaten dituzte, gaztelaniak gizartean bereganatu duen indarraren segurantziaz aritzean, euskara sendotzeko predisposizioa ahulduz.

Azken urteotako datuek erakusten dutenez, euskarazko alfabetatzeak gorakada aipagarria izan badu ere, erabileraren igoe-ra murriztarekin kontrastea egiten du. Euskara jakin eta ez erabiltzeak hizkuntza hau besteekiko diskriminatua dagoela frogatzeko baino ez du balio. Euskal lurralde osoan kasik gaztelania normaltasun (nagusitasun) osoz erabil daitekeen bitartean, euskara piramide baten moduan zatitzera behartuta gaude: goia, hizkuntza bakarra deneko tokiak, erdia, gaztelaniarekin lehian dabilenekoa, eta behealdea, ugariena, gaztelaniaren ondoan dekorazio elementu dirudienekoa. Etorkezunak euskara ezagutu baina ez hitzegiteko joera baieztatzen badu, normaltasunez erabiltzeko proiektuak proiektu izatetik ez dira pasako. Horra beraz, hizkuntzarekiko grina, motibazioaren garrantzia.

Mikel Artola

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Ba al dauka Udalak erreka aldeko etxeen fatxadak berritzeko asmorik? Benetan penagarria da errepidetik ikusten dena.

Udaletxeko teknikariek egon gara eta ezetz esan digu. Lehen Foru Aldundiak ematen omen zituen fatxadak txukuntzeko dirulaguntzak, baina aspaldian ez da horrelako laguntzarik egon. Txukuntzea nahi izanez gero, bizilagunek egin beharko lukete eskaria.



KEXAK

Aste honetako kexa ere haur batzuren da:

“Jolasean ari ginala, ume batzuei baloia jausi jakuen errekarara. Beste batzuk baloia hartzera jun ginanian, emakume bat ‘amorfos, gilipollas’ eta antzerakoak esaten hasi jakun. Nagusiengandik errespetu piska bat eskatu nahi dou”.



TXALOAK

Nahaste Borraste kirol frogako antolatzaileek Elgoibarko Udaltzaingoa txalotu nahi dute aipatutako frogan izan zuten jarreragatik. Udaltzainen laguntza benetan txalogarria izan omen zen.

ESKUTITZAK

Karakate, sarraski baten bidean

1 995eko otsailaren 13an (EAJ eta PSEk) osatutako gobernu batzordeak, Karakateko lurretan Ertzantzarentzako komunikabide zentroaren obrei hasiera emateko baimena eman zion Lakuako Gobernuari. Aipatutako eraikuntzak 290m².ko azalera izango du, non 70m.ko altuera izango duen antena jarriko den.

Baimen honetan ingurugiroari egingo zaion kaltea nabaria da, ingurugiroaren berezko izaera naturala apurtzen baitu.

Antena hau Ertzantzaren interesak asetzeko besterik ez da, gaur egungo instalazioak egokiak baitira edozein kanal ikusi ahal izateko. Guzti honetan tamalgarriena zera da: gauza hauek isilean egin dituztela eta herritarrok, obrak hasita zeudela, kaleko zurrumurrueetatik jakin dugula eraikuntza honen berri. Ezagutzen ez dugun zerbait izkutatu nahi al digute?

Ezin ahaztu dugu 1.377m²ko lur saila hartuko duen proiektu honek gure mendi eta ingurua deuseztuko dituela. Guzti hau Karakatera joango den edonorentzat ez da batere atsegina gertatuko.

KARAKATE BIZIRIK!!!

Enrike eta Jose Luisi:

Elkarrekin pasatutako ordu horietan guztietan, zuengandik jasotako laguntza eskertzen dizuet. Adiskidetasun horretatik sortutako momentu goxo eta latzak gogoratzerakoan, begiak malkoz betetzen zaizkit.

Ez dut pentsatzen hau merezi dugunik. Une garrantz hauen esanahia ulertuko dudalakoan nago. Badakizue nire esku dagoena egingo dudala.

Lurdes Arrieta

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Edozein kezka, iritzi, galdera... adierazteko aukera duzue bertan.

Eskutitzak ez dira 20 lerro makinaz baino luzeagoak izango. Era berean, idazten duenaren izen-abizenak, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu.

Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inisialak bakarrik ager daitezke.

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Kontxita Armendiak** lagatakoa da. Tolosako Berazubi kirol instalazioetan 1928. urtean ateratako erretratua. Orduko egunkarietako berriak irakurtzen aritu gara eta Elgoibarrek aparteko jaurtikizailleak eman zituela irakurri dugu.

Erretratuan daudenak Elgoibarko jaurtikizailleak ezezik, lehengusuak ere badira. Zaharrena eta sari gehien irabazi zuena (zazpi aldiz izan zen Espainiako txapeldun), **Ignacio Izagirre** zen eta bera izan omen zen besteen entrenatzaile.

Ikus dezagun zeintzuk diren Elgoibarko lau morrosko hauek. Ezkerretik hasita: **Basilio Etxaniz** “Arostegi (†)”, **Ignacio Izagirre** “Upai” (†), **Javier Aizpitarte** “Kakatza (†)” eta **Modesto Arriola** (†) **San Lorentzokoa**.

OHARRA: Urtero bezala, San Bartolome jaietarako ale berezia prestatzen ari gara. Hori dela eta, jaietarako erretratu zaharren beharrea gaude. Etxean zerbait topatuz gero, gure erredakziora ekartzea eskertuko genuke.



84 urte zituela, ekainaren 27an hil zen GUMERSINDA GOMEZ CARRERAren LOMOS GOMEZ sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Oinarrizko elikagai kapritxosoa

Izagirre, Ibarrenea, Fotero, Idarraga, Boutique del pan, Kartutxo eta Doña Mercedes. Zazpi okindegi daude gaur egun Elgoibarren. Horietatik asko azkenengo boladan ireki berriak gainera. Egungo gizartean, argal egotearen obsesioa dela eta, ogiaren kontsumoak behera egin duela dirudien arren, gure herrian behintzat ez da halakorik nabari. Okinek emandako datuen arabera, eguneko 6.400 ogi saltzen dituzte gutxi gora-behera Elgoibarren. Garai batean barra normala, gatzik gabea eta, asko jota, integrala baino ezagutzen ez baziren ere, orain hainbat eta hainbat ogi mota ezberdinen artean aukera dezakegu, 25 mota ezberdinen artean, hain zuzen.


Ogia gizakiaren oinarrizko elikagaia izan da eta da. Mundu osoko herrialde gehienetako etxeetan jaten da ekialdean ezik, han arroz egosia baita oinarrizko elikagaia. Orain dela 5.000 urte egipziarrak garia ogia egiteko erabiltzen hasi ziren, irinez eta urez. Labeak ere asmatu zituzten. Beranduago greziarrek egipziarren teknikak hobetu ziuzen eta hauen sistema jarraituz, erromatarrek Trajano enperadorearen (100 urte k.a.) agindupean okinen kolegioa sortu zuten eta lanbide bezala zehaztua geratu zen. Ertarotan ogi zuria aberastasunaren eta prestigio sozialaren islada zen. Urteak pasa ahala, ordea, ogiaren kontsumoa jaitsi egin zen (1880an 600 gramo jaten zen eguneko eta pertsonako eta 1988an 150 gramo bakarrik). Izan ere poliki-poliki familien diru sarrerak ugaritu ahala, bestelako elikagaiak ere hasi ziren kontsumitzen, hala nola, arraina edo okela. Garai batean ogia jatea aberastasunaren islada bazen, gerora ogia beharrean bestelako produktuak kontsumitzea izatera pasa zen. Horrekin batera loditasunaren eta ogia jateagatik gizentzea-

ren beldurra hedatu zen gizartean, ogiaren beherakada nabarmena ekarritz.

Azken urteotan, ordea, egoera aldatzen hasi dela dirudi. Medikuen esanetan, ogia beharrezkoa da giza-kiarentzat. Bitaminak izateaz gain, badirudi depresioaren aurka ezin hobea dela bai eta nerbioek eragiten dituzten gaisotasunen prebentziarako ere. Eta loditzen duenaren ideia gainbehera dator, ogiak oso koipe eta azukare gutxi dituelako eta, are gehiago, asetu egiten duenez argaltzeko erregimen askotan sartzen baitute.

Ogi motak

Ogi integrala elikadura osasuntsuarekin lotzen da, ongizate fisikoarekin, liseri aparatua estimulatzen du, gaisotasun intestinalak prebenitzeko oso ona da eta kolesterol tasa jaisten du. Ogi zuria gariaren %70arekin egiten da eta errefinatu egiten denez jatorrizko gatz mineral eta bitamina ba-tzuk galdu egiten ditu. Zelulosarik ez duenez intestinoa itxi egin dezake, atonia intestinala sortu eta obesitatea zein diabetesia eragite-



ko arrisku gehiago dauka.

Biologikoa da beste ogi mota bat, nekazaritza biologikotik lortutako irinak eta gatzakin egiten dena. Ogi biologikoa da ogirik naturalena, osasuntsu bizi nahi duten pertsonentzat egokia.

Moldeko ogia ogi normala da baina barra modura egosi beharrean hojalatazko kaxa batzuetan sartzen da masa. Moldeko ogia hortzetako arazoak izaten dituztenentzat da aproposa.

Minerale eta bitamina gehien dituen ogia ogi aberastua deitzen dena da. Ogia errefinatzerakoan galtzen dituen bitaminak gehitzen zaizkio eta oso aproposa da dietaren bat jarraitzen dutenentzat edo nagusientzat.

Zenteno ogia kandeal gariaren irinaz eta zenteno irinaz egiten da. Ogi zuriak baino kaloria gutxiago ditu eta efektu laxante lasai bat du gainera, atzazkalak sendotzen ditu eta azala leuntzen. Halere sei zerealen ogia da dagoen ogirik bikainena, pertsona guztiei komeni zaien ogia. Gari, zenteno, abena, zebada, arto eta arroz irinez egiten da aipatu ogia.

Ohiturak aldatuz doaz, ogia oinarritzko elikagaia izatetik kapritxoko jaki bat izatera pasa da. Bazkariko edozein janari laguntzea ezezik, ogiak berak bakarrik ere badu zapore berezirik, inoren laguntzarik gabe gozatzeko bezalakoa.

Elgoibarren saltzen diren OGI MOTAK

■ IZAGIRRE

Normala, gatzik gabea, integrala, makiltxoak, laukoa, pistola...

■ IBARRENEA

Normala, flauta, gatzik gabea, laukoa, pistola...

■ FOTERO

Normala, gatzik gabea, integrala, zentenoarekin, sesamoarekin, sobatua, pistola, txapata, eskuz eginikoa, po-txokoa, hanburgesarako ogia, moldeko ogia, makil-txoak...

■ IDARRAGA

Normala, txapata italiarra, abenarekin, ortuko ogia, baserri erakoa, bagues-a, zentenoarekin, sobatua, campayet, hanburgesarako ogia, pipak, integrala, integral naturala, plus minus, laxantea, gurinarekin, gatzik gabea, ...

■ BOUTIQUE DEL PAN

Normala, gatzik gabekoa, integrala, integrala gatzik gabe, baserri erako ogia, flauta, pistola, potxokoa...

■ KARTUTXO

Normala, gatzik gabekoa, integrala, baserrikoa, pistola...

■ DONA MERCEDES

Normala, viena, amona, espiga, flauta, pistola, integrala, plus minus diuretikoak, azenarioduna, zerealekin, gatzik gabe, malteatua, intxaurrekin eta maspasekin, intxaurrekin, frutekin eta txokolatearekin, espainola...

Ogiaren konposizioa

	ZURIA	INTEGRALA
K. Hidratuak	58 g.	49 g.
Proteinak	7,8 g.	8g.
Grasa	1g.	1,4 g.
Fibra	2,7 g.	8,5 g.
Kaltzioa	19 mg.	21 mg.
Burdina	1,7 mg.	2,5 mg.
Kaloriak	258 kcal.	228 kcal.

Adinaren arabera komeni den ogia

ADINA	EGUNEKO GRAMOAK
2-6 urte	100/200 g.
6-10 urte	200/300 g.
11-18 urte	300/400 g.
Helduak (Bizitza lasaia)	325/350 g.
(Ariketa fisikoa egiten dutenek)	475/500 g.

AHOLKUAK

- Ogi ondo txikitu eta txistukatu behar da digestioa errazteko.
- Ez da komeni ur asko edatea ogia jaterakoan likidoak almidoi partikulen bolumena haunditu baitezake.
- Gainontzeko elikagaiekin oreka bat mantendu behar da ogia jaterakoan.
- Ogi gogorra ez da biguna bezain komenigarria eta ogia ez gogortzeko toki freskuan eta lehorrean mantendu behar da.
- Ogi fresku mantentzeko beste era bat konjelatzea da. Horretarako aierik gabeko poltsa batean sartu behar da eta

ahal bada
zatiegan
moztuta.





magu's
 ILEAPAINDEGIA
 EDERGINTZA
 San Roke 6 behea tel. 74 34 91

MIREN
 arraindegia

 Santa Ana
 74 34 49
ELGOIBAR

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA
 Bereztasunak:
 Bakilaua
 Merkatu Plaza 33-34



*Eskulanean
 saiatzen gara
 Pastelak
 Tartak
 Izoziak
 Bonboiak*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

 **EGONDO, s.a.l.**
 METALEZKO ERAIKUNTZAK
 KALDERERIA LANAK OROKORREAN
 Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

ASTE HONETAN

KIROLA: udan zein neguan, forman egoteko metodoa

Kirola hitza Erdi Arotik datorkigu eta bere esanahia ondo pasatzearekin lotuta zegoen. Ingelesek asmatutako hitzak eta gaur egungo "kirol modernoak" ez dauka bata bestearekin zerikusirik.

Gaur egun denok onartzen dugu giza fenomeno handienetakoa dela baina definitzeko orduan oso zaila da. Alde batetik, aktibitate motore guztiak ezin ditugu kirol bezala onartu. Ondorioz, footing-a, aktibitate fisikoa da; xakea jokoak, mugimendurik gabeko jokoak eta "polizia eta lapurrak", kirol-joko ez instituzionalizatua. Horrela, kirol moduan onartzen da aktibitate motoreak, txapelketak, instituzionalizazioa (federazioa, elkarteak...) eta entrenamenduak daudenean.

Kirolean sailkapen bat egin daiteke:

Ingurune aldakorretara egokitu beharrekoak: piraguismoa, alpinismoa...

Ingurune egonkorretan burutzen diren kirolak; esate baterako, pistako atletismo frogak, taldeko kirolak...

Beste hainbat sailkapen egon arren ez ditut denak aipatuko. Kirola praktikatzeko garaian adinak zerikusi handia dauka. Gure gizartean "normalean" gehien praktikatzen dutenak gazteak dira. Gazte horien artean, 15 urtetik beherakoek maizago egiten dute. Adin honetatik aurrera txapelketen bidez bideratzen denez, gazteek laga egiten diote praktikatzeari. Entrenamendu bihurtzen da kirola egitea eta fisikoki zein mentalki aurrera egin ezin dezake-

tenek laga egiten dute. Hala ere, gaur egun gimnasioetan beste irtenbide batzuk aurki daitezke forman egoteko: aerobic, mantenuko gimnasia, yoga, taichi etab. Modu honetan, urtean zehar astean bi edo hiru aldiz praktikatu zergo, zure gorputza ondo mantentzeko. Kirola praktikatzen badugu, fisikoki eta mentalki hobeto sentitzen gara; gure buruarekiko konfidantza eta autoestima lortzen dugu. Bestalde, giharreak, artikulazioak etab. egoera hobean egongo dira, eguneroko ekintzak errazago egiteko aukera izango dugularik. Orain, uda garaian, kirol gehiago praktikatzen da. Neguan, aldiz, eguraldi txarra dagoelako, jantzi gehiago jartzen dugulako eta jateko joera handiagoa dagoelako, gure gorputzaz ez gara arduratzen. Ondorioz, udaberri aldean, udara begira, era guztietako irtenbideak bilatzen hasten gara. Elgoibarren harrera ona daukate udara aldera antolatzaile desberdinek prestatzen dituzten ekintzek, hala nola, patinaiak, tenisak, igeriketak, etab.



MAIER MAIORA



ROSA MARI DAKINTA
30 urte, proiektista

Bai. Urtean zehar aerobica eta gimnasia egiten ditut baina udan, Kiroldegia itxita dagoenez, mendira joaten naiz eta igeriketa ikastarora ere bai.



MARI CARMEN LOPEZ

41 urte, administraria

Ez, neguan askoz gehiago. Udan hondartzan pasiatzen dut baina gehiago ez. Neguan igandero joaten gara mendira.




IRUNE ZUBIAURRE
14 urte, ikaslea

Urtian zihar dantza eitzen dot. Aurten patinajera apuntatzekotan egon naiz baina bestela ez dot neguan baino gehixao eitzen.



JOSE ANDRES MURUA
42 urte, fresadorea

Neguan gehiago, udan hondartzara joan eta lasai egotea gustatzen zaidalako. Neguan footing-a egiten dut eta udan bizikletan ibiltzen naiz.



JON LARRANAGA
13 urte, ikaslea

Bai, futbola eta atletismua batez ere. Neguan ere futbolian ibiltzen naiz eta eskolarteko jokuetan ere bai. Udan, hondartzan igerixan eitzen dot.



JOSE LUIS RAMON
56 urte, torneroa

Udan emaztearekin joaten naiz hondartzara eta ez dut apenas kirolrik egiten. Neguan, aldiz, asteburu guztietan mendira joaten naiz.

**ASESORIA
COOP**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

ELGOIBAR, MENDARO ETA DEBA
inguruko langile hauek behar dira:

- Peoi industrialak
- Maisu industrialak (FPII)
- Pintoreak (pistola)
- Administrari auxiliarrak (esportazioan esperientziarekin)
- Prentsa, montadorea, ajustatzailea
- Mekanika, elektronika
- Kontrol numerikoa
- Estanpazioa hotzean

Interesatuok bidali curriculumua eta NAN neurriko argazkia kartazalean postuaren izena eta bizilekua adieraziz.

1846 posta kutxatila
20.006 DONOSTIA



■ Udako kanpaldiak

Deba Beheko aisialdi taldeek, *Dotoreak, Goruntz, Elgoibarko Zuhaitz, Gongonpailak* eta *Beti Prest* taldeak, 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako bi kanpaldi antolatu dituzte. Lehen abuztuaren lehen hamabostaldian izango da, 12 eta 14 urte bitarteko haurrentzat Burgoseko Manzanedillo herrian eta bigarrena, uztailaren 29tik abuztuaren 12ra, 15 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Izena emateko hilaren 14a baino lehenago deitu 74 12 61 zenbakira, astelehenetik ostegunera bitartean, gaueko 9etatik 10ak arte. Ostiral honetan, hilak 7, kanpaldiei buruzko azalpena emango dute Zuhaitz taldekoek parrokiak Ubitarten duen lokalean, arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

■ San Ferminak Kultur Etxetik

Iruñeko San Ferminak zuzenean bizi izateko aukerarik ez dutenek, gaurtik aurrera, hilak 7, Kultur Etxeko proiektzio gelan entzierroak pantaila handian ikusi ahal izango dituzte. Udalaren erabakiz, Kultur Etxeko proiektzio gela irekita egongo da goizero, 7:45 inguruan, gaurtik eta San Ferminetako azken entzierrora arte.



1990. urtearekin alderatuz, %90ean dago erreminta makinaren sektorea

Alberto Ortueta AFMko lehen-dakariaren esanetan, erreminta makinaren sektoreak gora egin du 1995eko lehen bost hilabeteotan. 1990. urtea izan zen sektorearentzat urterik oparoena. Orduko produkzio mailarekin konparatuz, %80-90eko produkzio maila dauka gaur egun erreminta makinaren sektoreak. Ortuetak emandako datuen arabera, esportazioek %27 igo dute iazkoekin konparatuz. Proporzio honetan jarraituz gero, "datorren urtearen amaierarako 1990. urtean lortutako emaitzak" berreskura ditzake sektoreak, Ortuetauren ustez. Datuok Erreminta Makinaren Insti-

tutuko moduluen diploma banaketa ekitaldian ezagutarazi zituen AFMeko eta IMHko patronatuko zuzendari gerentea denak. Honez gain, Jose Rejo IMHko zuzendaria, Gillermo Garate alkatea, Jose Inazio Elkoro-Iribe alkate ohia eta Pablo Eskibel Eusko Jaurlaritzako LHko arduraduna izan ziren diploma banaketan. Modulu-3ko "Delineazio Industriala", "Sistema eta Makina Automatikoaren Muntaiak" eta "Fabrikazio Mekanikoa" ataletan banatu zitzaizkien diplomak ikasleei. Bi urteko iraupena duen modulu-3 bukatu duten ikasleak 67 izan dira aurtun.



Lorea Arenasek, 16

urteko gazte honek, 40.000 pta.ko afaria irabazi du Eskubaloi Taldeak egindako zozketan. Saritutako zenbakia, 6562 izan da, "lagun bati erositakoa da; bakarra gainera, baina etxean zenbaki gehiago zeuden beste batzuei erositakoak". Gabi jatetxeko afariarekin sabela bapo bete ordez, Loreak nahiago izan du dirua hartu eta "aurtengo oporrak ahalik eta hobetoen pasatzeko erabiltzea". Argazkian Elgoibarko K.E. Eskubaloi Taldeko Joxean Hildalgoren eskutik saria jasotzen. Zorionak eta ondo pasa oporrak!

Sanmigeldarrek ezin izan zuten iazko marka berdindu

Lau tiraldiz osatutako Euskadiko Txapelketaren azken tiraldia izan zen pasa den larunbatean San Migeleko bolatokian jokatutakoa. Euria franko, ez zen giro izan San Migelen.

Aurtengo Euskadiko Bolo Txapelketan arabarrek

erabateko nagusitasuna erakutsi zuten. Euskadiko Txapelaldun Eibarko Mahasti taldekoak geratu baziren ere, bigarren, hirugarren, laugarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren postuak arabarrentzat izan ziren. Elgoibartarrak iaz Euskadiko bigarren izan baziren



ere, aurtengo "pattal" ibili omen dira. Talde arabarren presentziak txapelketaren maila izugarri igo zuen. Hortaz, iazko bigarren postua berreskuratzeko asmoa, asmo hutsarekin konformatu behar izan dute sanmigeldarrek.



Ikastolako eta Herri Eskolako

ikasleak ditugu argazkiotan. Ikastolako 5. eta 6. mailako 115 ikasle eta bost irakasle, hiru egun igaro zituzten Espejoko (Araba) aterpetxean. Besteak beste, kirolak, jolasak eta leku ezberdinak ezagutzeko parada izan zuten. Hara hona Ikastolako haurrak aterpetxearen aurrean argazkirako posean. Eskuinean Herri Eskolako 1., 2., 3., 4. eta 5. mailako ikasleak Hondarribiko aterpetxera joan ziren ekainean hiru egun pasatzera. Hiru egunak giro ezin hobean pasatu zituzten, aspertzeko betarik izan gabe.



■ Altzolako jaietako zozketaren zenbakia

Altzolako jaietan egindako zozketan 3181 zenbakia izan da saritua eta beronen jabea Jose Osoro "Katxo" da. Irabazi duena ez da ez, makala; Josek 50.000 pta. jasoko baititu sari modura.

■ Ibaiaren mozketari buruzko alegazioak

Gazte Asanbladak Lerun-Morteriako proiektu partzialaren inguruan hainbat alegazio aurkeztu ditu idatzi batean. Hasteko, nekazal lur izaten jarraitzeko eskatzen du, "Deba bailaran dagoen ekosistema bakarra izan daitekeelako". Horregatik "proiektua bertan behera uztea eta SIGMA lantegiko lurrak" erabiltzea proposatzen dute. Lerun-Morteriako plana baztertzeko beste arrazoi bat ingurugiroan izan dezakeen eragina aztertu ez izana da. Honez gain, Altzolan ibaiari 800 metro kenduko zaizkionez, "uholde arriskua areagotu egin daiteke eta gerora begira ekar lezakeen errentagarritasunari buruzko azterketarik ez da egin. Gainera proiektuak porrot egingo balu errua ez du inork bere gain hartuko" dio Gazte Asanbladaren idatziak. Proiektuaren atzetik "interes espekulatibo eta ekonomikoak" daudela salatzen du Gazte Asanbladak.

Inma Mugerza:

"Alemani inprobisatzeko gaitasuna falta zaie"

Inma Mugerza elgoibartarrak, urte bete darama Alemaniako Aachem herrian lanean. Geologian lizentziatu ondoren, Europako Elkarte Ekonomikoak antolaturiko "Comet" programako beka bat lortu zuen eta Alemaniara joan zen. Bertan, ingurugiroari buruzko azterketa lanak egiten dituen

A.H.U. enpresan dago lanean. Profesionalki esperientzia aberasgarria izateaz gain, beste herri bateko kultura eta hizkuntza ezagutzeko aukera ere izan du. Bi asteko oporraldia pasatzera etxera bueltatu dela aprobetxatuz, berarekin hitzegin dugu bere esperientzia kontatu diezagun.

- Zer iruditu zaizu Geologiako lizentziatura?

- Nik gaztetatik argi nuen etorkizunean mendiarekin eta naturarekin harremana zuen zerbaitean lan egin nahi nuela. Gustatzen zitzaidan karrera bakarra Geologia zen. Gero, karrera egiten ari nintzen bitartean, nire itxaropenak bete eta gainera nik uste baino mundu zabal eta interesgarriagoa dela konturatu nintzen, nahiz eta irakaskuntza aldetik asko hobetu daitekeen.

- Zertan zaude Alemanian?

- "Comet" programako beka batekin nago praktikak egiten. Beka hauei esker, karrera bukatu eta lizentziatuek Europako herrialdeetan urtebeteko praktikak egiteko aukera daukagu. Ni, ingurugiroari buruzko lanak egiten dituen enpresa batean nago. Lurraren eta lur-azpiko uraren kutsadura aztertzen duen departamentuan, hain zuzen. Bertan, potentzialki kutsatuak egon daitezkeen lur eta ur eremuak aztertzen ditugu. Lehenengo, tokiari buruzko ikerketa historikoa egiten da, kanpo-lana, gero



"Alemanak lana bizitzeko egin beharrean, lanerako bizi dira."

muestreoa... kutsadura dagoela jakin arte. Lan honen azken helburua kutsaduraren zergatia aztertzea eta geldiaraztea da.

- **Nolako da zure bizi-modua han?**

- Bueno, hura nahiko triste da. Neguan lauretarako ilundu egiten du eta jende guztia etxera erretiratzen da, kaleak hutsik geratzen dira. Ni goizetik eguerdira arte lanera joaten naiz eta arratsaldero hiru orduz alemana ikaste-

ra. Daukadan denbora libreka kirola egiteko eta toki berriak ezagutzeko erabiltzen dut. Noizean behin zinera edo lagun baten pisuko festara joaten naiz.

- **Nolakoak dira Alemanak?**

- Jendea ez da batere "hospitalarioa", beraiekin konektatu ahal izateko zure partetik asko jarri behar duzu. Oso zuzenak dira, dena programaturik daukate, dena agenda

batean daramate apuntatuta eta hortik kanpora ez dute inprobisatzeko gaitasunik. Sexu aldetik gu baino liberalagoak dira eta familiako batasun kontzepturik ez dute. 17 urterekin joaten dira etxetik bakarrik bizitzera, familiakoekin harremana ia etenaz. Oso kontsumistak dira bai eta langileak ere. Lana bizitzeko egin beharrean, lanerako bizi dira. Estresatuta bizi badira ere, lana ondo eta zuhurtasunez egiten dute.

- **Etorkizunari begira?**

- Bueno, Alemanian abendura arte egongo naiz gutxi gora-behera. Hona bueltatu eta lana topatzeko asmoa daukat. Hemen, ingurugiroan lanean jarraitzea gustatuko litzaidake, nahiz eta arlo hau Euskal Herrian ez dagoen Alemanian bezain garatua eta normalizatua. Geologia arloa oso zabala da eta lan izugarria dago egiteko oraindik. Espero dut kanpoan lortutako esperientzia eta ikasitako hizkuntza berriak erreztasuna ematea lana topatzeko orduan. Bukatzeko, aitortu behar dut etxean bezala ez dela inon egoten.

EDURNE KORTA

Txiki BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 15. GEHIGARRIA



San Bartolome ikastolako 5. mailako ikasleak Gipuzkoako Gorren Elkarteak Bergaran duen egoitzan izan ziren ekainaren hasieran. Elgoibartarrek, ikasle gorren mundua ezagutzeko aukera izan zuten, beraien ikasketak nola gauzatzen diren azaldu zitzaizen, haiek erabiltzen duten materiala ikusi zuten eta, bide batez, Ikastolako ikasleek, Edurne Lasarekin prestatutako mimo antzerkia antzeztu zuten beraiantzat. Argazkian ikusten ditugu elgoibartarrak lorez jantzita eta ikusleak arreta handiz guztia jarraitzen.

Txistea

- Amatxo zergatik dago aita ilerik gabe?
- Oso buruargia delako eta zer pentsatua asko duelako.
- Eta orduan, zergatik duzu zuk hainbeste ile?
- Jan zopa, txolin hori!



Haurrak eta asma


Garai batean asma biriketako fluxu aereoaren zailtasun errebersibleari (momentaneo) deitzen zitzaien asma eta hau berez (espiritoneoki) edo tratamendu bidez sendatzen zen. Beraz, erraz antzematen zen zein pertsonak zuen asma, pertsona hau ito egiten zelako (disnea) edo bularrean "zaratak" edo "txistuak" entzuten zitzaizkiolako (sibilantziak). Ideia hau aldatzen joan da eta gaur egun, asma arnasa egiteko bideen malformazio kronikoari deitzen zaio, nahiz eta itoaldirik ez egon, edota "txisturik" entzun ez. Asmaren sintomak, aipatu ditugunez gain, ez tul kronikoa, aireko bide altuen edo bajuen obstrukzio kronikoa (edema mukoso edo mukositatearen eraginez), bularreko mina, nekea edo gaueko eztula dira.

Asma lehen aldiz k.a.ko 5.000. urtean ezagutu zen, baina gaur egungo kulturari asko ugaritu da, batez ere industriek sortu duten kutsaduraren eraginez. Hori dela eta, gaisotasun moderno dela esan daiteke.

Asma heredentziaz jasotzen da, konstituzio atopikoa deitzen dena (asma izan duten senitartekoak, edo sinusiti kronikoa, alergiak edo eze-

mak). Era berean, bada beste faktore "irritagarri-sortzaile" bat bide aereo hiper-erreaktiboen eragiten duena, Hauek, erreakzio exageratuak izaten dituzte estimulu edo alergenok konkretu batzuren aurrean. Faktore "irritagarri-sortzaile" hau arnaske-ta aparailuko infekzioa izan daiteke bai eta hautsa ere (akaroak: hautsean eta hautsetik bizi diren armiarma mikroskopikoak), polena edo lizuna (espora aerogenoak dituzten onddoak). Irritzaile industrialak edo medikamentuak (aspirina edo antzeko antiinflamatorioak), gehiegizko ariketa fisikoak, aldaketa atmosferikoak edo estresak ere sor dezakete asma krisia.

Gaur egun asko aurreratu da tratamenduetan eta kasurik gehienetan inhalatorioak, arnasa hartzeko medikamentuak dira. Era honetara, farmako kantitate egokia sartzen da bide aereoetara bigarren mailako efektu txarrak ekiditen direlarik. Tratamendu honekin batera, asma eragiten duten faktoreak gutxiagotzeko neurriak ere hartu behar dira. Besteak beste, faktore irritabletatik urrunduz (hautsa, kea...) edo txertoen bidez desensibilizatuz (gorputza faktore irritabletailerara ohituz).



Ramon Mujika Zabaleta
Pediatria

Ze iritzi daukazu*jaiei*..... buruz?




Traxi pilonxi! Dima gaitatzeko eta lagunekin super ondo paratzeko egunak dira.

DAVID RODRIGUEZ, 10 urte



Nire witez ondo daude eta tradizioa jarraitu behar da. Niri San Bartolomeak asko gustatzen zaizkit eta espero dut horrela jarraitzea.

MIREN GUILLO, 11 urte



Politak, dibertigarriak. Umeak jolatu egiten dugu eta denok ondo paratzen dugu.

SONIA MENDOZA, 9 urte


Galde debalde



Oscar Martin
6 wtvg

1. Hondartzara joan eta bainatzea.
2. Ondo zaintzen gaitzuela eta opariak egiten dizkigutela. Ezer ere ez.
3. Ezer ere ez, ez zaizkit gustatzen.
4. Mapa bat.
5. Son Goku, eskuan.
6. Mutila.
7. Lagunei banatuko nieke zati bat eta bestearekin formula 1erako kotxia eta etxia erosiko nituzke.
8. "Ibai hegazkinean", oso politxa.
9. Haginak garbitxu.

- 1- Zer da udak duen onena?
- 2- Gurasoek duten onena? Eta txarrena?
- 3- Zer gustatzen zaizu nesketatik/mutiletatik?
- 4- Laberinto batera zer eramago zenuke irteteko pista bezala?
- 5- Zer tatuatuko zenuke? Non?
- 6- Berriz jaioko bazina neska ala mutila izan nahi zenuke?
- 7- Loteria tokatuko balitzaizu?
- 8- Irakurri duzun azken liburua?
- 9- Oheratu aurretik egiten duzuna?



Sandra Abejon
12 wtvg

1. Lagunekin egotea eta hondartzara joatea.
2. Ematen diguten maitasuna. Umore txarra.
3. Begi urdinak eta sinpatikoak izatea.
4. Mapa bat.
5. Larrosa bat besoan.
6. Mutila, futbolista profesionala izan ahal izateko.
7. Bidaia bat egingo nuke Disneylandiara.
8. "Cuando Lot se hizo invisible".
9. Haginak garbitzen ditut gauero.

Zer da...*egarria*...?

OSCAR MARTIN 13 wtvg



"Beroa egiten duenean sentitzen duzuna: sustantzia bat edateko gogoia."

ASIER DIBES 8 wtvg



"Eguzkia dagoenean eta izerditan zaudenean ura edan behar duzu momentuan, bestela hil egingo zinateke beroarekin."

ANE MIREN BADAÑELA 13 wtvg



"Norbaitek ahoa edo mingaina lehorra izatea eta gehienetan beroa egiten duenean."

ASIER ATRIO 11 wtvg



"Egarria nire lagun onena da. Berak nahi duenean ahoan egiten digun putzutxo txiki hori da."

MIREN BELZA 8 wtvg



"Zerbait gazia jaten baduzu egarria somatu egiten duzu eta edozein likido edaten duzu: ura, kasa, ardoa..."

SANDRA ABEJON 11 wtvg




"Imajina zure etxea botatzen duzula, ezta-rria lehor-lehorra duzula. Hori da egarria. Baina badu erremediorik: Coca-Cola edatea."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



3. Bukatu ezazu marrazkia



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?




MONICA VINARAS
12 urte

Lehenengo lagunekin ibiliko naiz, hondartzara jungo naiz eta gero Zuazara, udalekura. Han jolasian ibiltzen gera, mutilekin ligatzen dogu eta oso ondo pasatzen dot. Abuztuan gurasuekin Benidormera jungo naiz, urtero bezela.

JOKIN ZUBIAURRE
7 urte

Debara jungo naiz ze han etxia dakagu. Hondartzara jungo naiz eta arrainak arrantzatuko ditxut, lagunek kainabera bat dakate eta igual lagako die. Behin bi arrain harrapatu nitxun, baina oso txixiak zian eta berriz ere bota nitxun uretara.



4. Asmakizunak:

- Zuzen-zuzena du makiltxo, eta buruan dauka hizki honek eltxoa.
Zer da?.....
- Batetik bestera ibiltzen da azpitik, zulo asko egiten ezer ikusi barik, zuk ere ez pentsa erraz harrapatzerik.
Zer da?.....
- Beti harro-harro doan oihaneko erregea ikusten baduzu zirkoan, preso dagoen seinale.
Zer da?.....

ERANTZUNAK: 1. Carmelo Modamio. 2. Zer egingo duzu oportetan? 3. "h" hizkia, satorra, lehia.

Isabel Urrusolo

ARGIN zapatadendakoa

- **Oinutsik ibiltzea ona dela diote.**
- ▶ Ez dakit. Umiak gehixenetan zapatak kendu eitzen dabe eta zeozegatik izango da, baina...
- **Sandaliak ala zapatilak?**
- ▶ Zapatilak nahiago ditut.
- **Takoiarekin ala gabe?**
- ▶ Takoi piskatekin nahixao dot.
- **Nori emango zenioke ostikada bat?** ▶ Txixa eta kaka kalean eitzen daben txakurreri.
- **Zer zapalduko zenuke desagertarazteko?**
- ▶ Politikia. Edo politikuak.
- **Bezeroa aholkatu ala konbentzitu?**
- ▶ Konbentzitu ez, ze gehixenetan ideia garbixekin datoz.
- **Nora joango zinateke bota magiko batzuekin?**
- ▶ Toki askotara, baina bat aukeratzekotan, Mexikora.
- **Zerk jartzen zaitu ume bat zapata berriekin bezain pozik?**
- ▶ Oporrak eukitziak.
- **Afiziorik?** ▶ Futbola gustatzen jata, batez ere Elgoibar-ek eta Realak jolasten badabe.
- **Jasan ezin duzun zarataren bat?** ▶ Musika oso altu egotia.
- **Zure izaeratik zer emango zenioke beste norbaiti?** ▶ Ezer ere ez.
- **Eta zer jasoko zenuke beste norbaitengandik?**
- ▶ Balientia eta trankila izatia, nerbiosa ez jartzeko kapazidadia.
- **Bikinia ala bainujantzia?**
- ▶ Sekula ez dot bikinirik jantzi, ez jata gustatzen nola geratzen jatazen.
- **Erabiltzen duzun kolonia?**
- ▶ Ez dot beti erabiltzen, baina bat esatekotan, Estivalia.
- **Ba al daukazu amuletarik?** ▶ Ez. Ez naiz superstiziosia.
- **Zerk sortzen dizkizu hotzikarak?** ▶ Gauza askok, gaur egun jendian artian dauan gatazkak, adibidez. Pena handixa ematen dia.
- **Hitzegitea ala entzutea?** ▶ Entzutia nahixao dot.
- **Nori ez zenioke sekula gezurrik esango?** ▶ Neure buruari.
- **Maitatzea ala maitatua izatea nahiago?** ▶ Maitatua izatea.
- **Elgoibarko txokorik politena?** ▶ Mintxetara oso gustora juten naiz.
- **Eta zuk daukazu gauzarik ederrena?**
- ▶ Ez dakit, pazientzia haundixa dakat.




FRANTZIAKO TOUR-a

Uztailaren hasiera hau izaten da borobila oporrak daude, Tour-a hasten da haxe dugu marabila Miguel Indurain da faborito bera da oso abila Bostgarren Tour-aren bila (bis) Bere ondoan hiru astetan egongo da jende pila Ea zenbatek jarraitzen duten Atarrabiarraren gurpila (bis)

Gutako asko telebistari begira egongo gera Indurainek du historia eiteko paregabea aukera Eta horrela Anquetil, Merckx ta Bernard Hinault-en antzera Erreinu baten hasera (bis) Nahiz Rominger-ek, Pantanik, Zullek... daukaten asmo berbera Dudarik gabe baietz MIGUEL-ek BOSGARREN TOURRA ATERA! (bis)



JON GARATE



5.000 miloitik gorako ondarea du Udalak

1995.eko martxoaren 31ko datuen arabera, Elgoibarko Udaletxearen ondarea 5.691.104.655 pta.koa da. Terrenuen balioa 1.152.597.291 pta.n zehazten da, eraikuntzak 3.171.986.236 pta.n eta altzari historikoek 78.400.000 pta. balio dute.

Udaletxea, 73.570.000 pta.n eta Foruen Enparantza, 55.753.000 pta.n baloratu dira. Beste batzuren artean, batzuk baliorik handiena izateagatik nabarmentzen dira. Besteak beste, Mintxeta, 402.422.000 pta., Olai-zaga kirodegia, 377.955.000 pta.,

San Lazaro zaharren egoitza eta kapera, 332.250.000 pta., Merkatu Plaza, 265.716.000 pta., Urasandiko eskola 161.700.000 pta., Pedro Muguruzako eskola 129.198.000 pta., Herriko Antzokia 111.000 pta. edota Zaharren Biltokia, 112.596.000 pta. Horiez gain gauza bitxirik ere aurki daiteke ondarean, hala nola, alkatearen besaulkiak 50.000 pta.ko balioa du eta zinegotzienak 8.000 ptakoa. Kaleei dagokienean, Arriaga da baliorik handiena duena, 62.260.000 pta.n tasatua dagoelarik.




■ ■ Merkatu Plazak 265 milioiko balio dauka.

ELGOIBARKO UDALAREN ZENBAIT ONDASUN



Merkatu Plaza	265.716.000 pta.
Altzola Dorrea	96.750.000 pta.
Herriko Antzokia	111.000.000 pta.
Olaizaga Kirodegia	377.955.000 pta.
Mintxeta	402.422.000 pta.
Zaharren egoitza	112.596.000 pta.
Liburutegia	71.670.000 pta.
Leruneko orubea	24.800.000 pta.
Leku Eder parkea	98.440.000 pta.
Aita Agirre eskola zaharra	70.828.000 pta.
Hiru-iturriko eremua	577.500 pta.
Olasoko kanposantua	40.000.000 pta.
Txankakua zubia	42.500.000 pta.
San Bartolome kalea	7.142.400 pta.
Pedro Muguruza etorbidea	57.610.000 pta.
Arriaga kalea	62.260.000 pta.
San Pedroko errepeidea	101.240.000 pta.
Alkate jaunaren besaulkia	50.000 pta.
Zinegotzien aulkia	8.000 pta.
Hiri-Gutuna	2.000.000 pta.
Elgoibarko armarrria	80.000 pta.
Madalenaren irudia	800.000 pta.
Artzain txakur alemana	65.000 pta.

ELGOIBAR INMOBILIARIA S.A.



ETXEBIZITZAK San Roke Poligonoan

1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak

8.224.000 pta.tik gora

INFORMAZIOA: Leku Ederreko lokaletan. ☎ 74 40 34

Eraikuntza obren 4. fasea

■ 1746. urtetik 1748ra arte obrak geldituta egon ziren dirurik ez zegoelako. Bien bitartean dorrearen proiektua aldatzea erabaki zen, XVIII. mendeko estilora egokituz. Horretarako, garai hartan Gipuzkoan oso ezaguna zen arkitektoa aukeratu zen, Ignacio Ibero, Loiolako baselizako obren zuzendaria.

■ 1748an dorrearen eraikuntza-kontratoa egin zen Ignacio Iberorekin eta bere semea zen Francisco Iberorekin. Halere, kontrato hau baliorik gabe utzi zuen Gaztelako Kontseiluak enkantean egin behar zela aginduz.

■ Enkantea Lizardi arkitektoak irabazi zuen arren, Gaztelako Kontseiluak Iberotarrei agindu zien dorrearen eraikuntza.

■ Une horretatik aurrera badirudi obraren zuzendaritza Franciscoren gain geratu zela, aitaren proiektuaren egilea eta, batzuetan, berritzaile izanik. Era berean, Zuaznabarrek, Ermuan bizi zen arkitekto oiartzuarrak egin zituen obrako ikuskari eta aholkulari lanak. Francisco Iberok eta Zuaznabarrek, adibidez, Ignacio Iberok egin zuen kanpandorrearen proiektua aldatu egin zuten garaiera handiagoa emanaz.

■ 1750. eta 1756. urteen artean eraiki zen dorrea. Azken zatia linterna, erlaiza eta laranja erdiarekin bukatu zen eta gorputz honen gailurrean bola bat jarri zuten gurutzearekin eta haizeorrazarekin. Egileak, Gregorio Osoro eta Jose

Iturrioz izan ziren.

■ Elementu hauek urrezko 4.000 panelez urreztatu ziren. Francisco Iberok gurutzearen pisua altuerarekiko desproporzionatua ikusi zuen eta haize boladek bota zezaketela ikustean, ez zuen bere gain erantzukizunik hartu nahi izan.


■ Dorrearen barruko bi zoluak eta eskailerak egurrezkoak egin ziren nahiz eta hasierako ideia toba harrizko ertz-gangak eraikitzea izan. Francisco De la Rivak dorrearen balkoi gainean armorari itsatsia dagoen armaria urreztatu eta polikromatu zuen. Azkenean, fatxada nagusian beste elementu garrantzitsu bat falta zen: erlojua. Dorre-erloju zahar bat konpontzeko eman zioten Azepeitian bizi zen Antonio De Veanderi. Ondoren, Gregorio Agirrek eginiko koadrantearekin ipini zuten dorrean.

PELLO
ARRIETA




Juan Beloki

(1954-1995)



- Filipinas-en jaio zen 1954. urteko uztailaren 23an. Aita elgoibartarra zuen eta ama finilipinarra.
- Elgoibarren bizi izan zen 2 urte zituenetik 18 urte egin arte. Adin horrekin Elgoibartik alde egin zuen. Ohiko bizilekua Alemanian ezarri zuen, etaartzelona ere sarritan joaten zen.
- Pilar ikastetxean ikasi zuen eta gero, Ekonomian doktoratu zen.
- Izugarri maite zuen Elgoibar. "Juanxo" izenez ezagutzen zuten Elgoibarren. Ahal zuen guztietan herrira etortzen zen bertako sendia eta lagunak bisitatzen.
- Ezkondua zen eta alaba bat zuen.
- Urruti bizi zen arren, Errealzale amorratua zen. Futbolaz gain, beste kirol batzuk ere gogoko zituen, esku pilota esaterako.
- Duela gutxi hil zen, maiatzaren 26an hain zuzen.

**Mandiola S.L. Egurrak**
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza 3 • ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42 • ELGOIBAR

Maria Urizar
ileapaindegi
mixtoa
Errosario 9-1ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

MOTZAK

II. Mountain-bike trabiesia igandean

Igandean, hilak 9, Mountain-bike trabiesiaren bigarren edizioa burutuko da Udalak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta. Lasterketaren asmoa herrikoia izatea denez, ez da sailkapenik egongo. Txirindulariek herriko mendiak zeharkatuko dituzte, ibilbide bakarra baina bi aukera daudelarik: 23 km.ko bide motza edo 29 km.ko bide luzeagoa hartzea. Irteera eta helmuga Mintxetan izango da bai eta izen-ematea ere, lasterketa hasi baino zertxobait lehenago. Izena ematerakoan 500 pta. ordaindu beharko ditu partaide bakoitzak. Lasterketa bukaeran edariak eta otartekoak banatuko dira eta partaide guztien artean mountain-bike materiala zozketatuko da.

Arrantza txapelketa Zumaiako Beduan

Igandean, hilak 9, bazkideentzako arrantza txapelketa burutuko da Zumaiako Beduako errekan *La union* Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta. Goizeko 10etatik 2etara bitartean izango da txapelketa. Beharrezkoa izango da parte hartu ahal izateko arrantzarako baimenaren eta Arrantza Federazioko lizentziaren jabetun izatea.



Oscar Calvo:

"Segundo eskas jaitea gustatuko litzaidake"

■ **Zer moduz Espainiako Txapelketan?** - Nahiko ondo. 300 metro baitan ez dakit bosgarren edo seigarren geratu nintzen. Aurretik zihoana kaletik irten eta ez dakit kanporatu egin zuten. Eta 4x100 erreleboetan laugarren geratu ginen Euskadiko taldea.

■ **Esperientzia moduan?** - Berriro parte hartzea nahiko nuke. Hasieran ez nuen gutxieneko denbora egiterik lortu baina jende gutxi zegoenez, Malagara joateko aukeratu ninduten. Behin han nengoela, lehen lasterketan bertan, eskatzen zuten denboraren azpitik geratu nintzen, oso azpitik gainera.

■ **Maila altua al dago?** - Gutxi gora-behera espero nuena. Hala ere, badago bat edo bat oso goitik dagoena. Ikustekoa da zein erraztasunekin pasatzen zituen bailak.

■ **Bailetan betidanik?** - Lehen serie motzak egiten nituen, 60m, 60 bailak eta 100m. Baina gero 300ean ondo nenbela ikusi zuten eta duela bi urtetik horretan nabil.

■ **300 bailetan egin duzun denborarik onena?**

- 40'37. Marka ona 39'07 egitea litzateke niretzat, orain daukadan denborari segundu eskas kentzea. Baina teknika falta zait. Oporren ostean, Donostiako entrenatzaile batekin



teknika hobetzen saiatuko naiz.

■ **Euskadiko txapeldun ere izan zara behin baino gehiagotan.**

- 9 urterekin hasi nintzen eta iaz arte, urtero izan naiz Euskadiko txapeldun 60m. eta 60 bailetan. Iaz kadeteetara pasatzean ni baino zaharragoekin, hirugarren geratu nintzen eta aurten Euskadiko txapeldun izan naiz 300 metrotan.

■ **Bailak botatzeak, garrantzarik ba al dauka?** - Ez, baina kaltegarria izan daiteke korrikalariarentzat; denbora galtzen da. Bailak saltatzeko hanka luzeak eta orkatiletan indarra izatea garrantzitsua da. Eta gero, giharreak indartzea.

■ **Zer da gogorra, lasterketetako nerbioak ala entrenamenduetako sakrifizioa?** - Nerbioak. Hala ere, egunero bakar-bakarrik entrenatzea ere oso sakrifikatua da. Gainera atletismoan ezin da etenik

egin, eguneroko jarduna eskatzen du.

■ **Jar iezaiozu nota zeure buruari:**

- Uf! Zer zaila! Zazpikoa edo zazpi terdikoa.

■ **Beste kirolik?** - Tenisa, baina ez dut praktikatzen.

- Adina: 16
- Kirol-arropa marka bat? Karhu eta Nike
- Kolore bat: Urdina
- Korrika egiteko leku bat? San Lorentzo



Edergintza

- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03

GARAY

HARATEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Hasiera arrakastatsua izan du udako kirol kanpainak

Aste honetan hasi da, astelehenean hain zuzen, Udalak antolatzen duen udako kirol kanpaina. Aurten sekula baino jende gehiagok eman du izena hilaren 3an hasi eta uztaile osoan zehar, hilaren 28ra arte, burutuko diren ikastaro eta irteeretan. Honenbestez, 350 bat pertsona daude Udalak eskaini dituen 28 kirol iharduera ezberdinetan aritzeko prest. Zenbait ikastarotan izena ematerik ez dagoen arren, beste zenbaitetan parte hartzeko aukera egon badago oraindik ere.

Tenisa errege

Urtero bezala, Udalak eskain-

tzen dituen kirol iharduera ezberdinen artean, tenisa izan da arrakastatsuen. Honekin batera, patinaia eta eskalada dira jende gehien erakarri dituzten kirolak. Eskaladak, izugarritzko igoera izan du aurten, helduen artean batez ere. Aipatu baita ere, aurten lehen aldiz, Mendaroko jendea izango dela ikastaroetan.

Bestelako ihardueretan, mountain-bike, atletismoa, buzea... zein astebukaeretakoa irteeretan, rafting-a, Urbasa zaldiz, hidrospeed, kayak... izena eman daiteke oraindik. Ikastaroak Mintxetan, tenis pistan, IMHn eta Kiroldegian burutuko dira.



Joseba Etxeberria Athletic-era doa

Joseba Etxeberria 17 urteko futbolari elgoibartarrak Athletic de Bilbao taldean jokatu du datozen sei denboraldiotan. Josebaren aita, Jose Antonio Etxeberria eta Real Sociedad-eko zuzendaritza ez ziren akordio batera iritsi Josebaren fitxaren inguruan. Hortaz, Athletic de Bilbako zuzendaritza Errealari 550 milioko klausula ordaintzeko prest zegoenez txurigorrien taldean hasia erabaki dute Josebak eta bere aitak. Errealeko Luis Urangaren iritziz, Athletic-en jokabidea ez da zuzena izan baina Joseba eta bere aita oso pozik omen daude fitxajearen ostean, Errealetik "alde egitea penagarria" den arren. Etxeberriak hurrengo sei denboraldietan txurigorrien taldean jokatu du 190 milioi pta.ren



■ ■ Harrerarik onena patinaiak eta tenisa izan ohi dute urtero-urtero.

AGENDA

MINTXETAKO I. FUTBOL TXAPELKETA

Mintxetan

8, larunbata

10,15: Xare - Lagun Onak

Tongo - Otro mas

11,15: Tropiko - Ametsa

Astigarraga - Lagun Toki

12,15: Pedrusko - Spartak Pitxote

Karkis - Oraiko Cafe

9, igandea

10,15 Txirristaka - Patxo

11,15 Gruas Pana - Jack Daniels

12,15 Chapuzas - Chemolino Rojo

EMAITZAK

MINTXETAKO I. FUTBOL TXAPELKETA

A TALDEA Pedrusko, 1 - Ametsa, 0
Spartak Pitxote, 1 - Lagun Onak, 3
Tropiko, 0 - Xare, 7

B TALDEA Chapuzas, 2 - Patxi, 0
Jack Daniels, 2 - Txirristaka, 5
Chemolino Rojo, 3 - Gruas Pana, 3

C TALDEA Astigarraga, 2 - Tongo, 5

"LAGUNAK" ESKU PILOTA SARIA

Benjaminak: I. Murua, 18 - M. Bergara, 13
Alebinak: I. Martinez, 16 - A. Elustondo, 18
Infantilak: Josu Orbea, 18 - Jon Gerrikabeitia, 14
Kadeteak, 4 t'erdiko txapelketa:
Jon Garate, 18 - Arkaitz Balzola, 14




KOPA


Lucky-Luke eta La Maxia taldeek aurrez-aurre jokatu zuten kopako finalean. Bi taldeak oso parekatu aritu ziren, biek izan zituzten golak sartzeko aparteko aukerak. Lucky-Luke taldeak bigarren gola penaltiz sartu zuen. Berdinketa gertatu zenez, 5 minutuko luzapena jokatu zuten. Lucky Luke-k hartu zuen aurrea, berdinketa ere izan zen baina azkenik, 15 segundo falta zirenean garaipena eskuratu zuen Lukcy Luke-k, 3-4. Partidu polita eta final bati dagokion modukoa.

LIGA

Kopako partidua baino aspergarriagoa izan zen arren, bi taldeek izan zituzten aukerak. Kalitatea eta beldurra erakutsi zuten, batez ere. Baloia kontrolatzen ahalegindu ziren lehiakideak partidu osoan zehar. Garajes Garciak hartu zuen aurrea lehenik, Karkis-ek berdintzea lortu zuen eta azkenik, 10 minutuko luzapena jokatu zuten. Garajes Garcia nagusitu zen, 2-1.




Lehen fasean, A taldean gol gutxien (12 gol) jaso dituen atezaina.




Lehen fasean, B taldeko golegilerik onena (27 gol).




Kopako finaleko jokalaria onena.




Lehen faseko A taldeko golegilerik onena (23 gol).




Ligako golegilerik onena (12 gol).



Lehen faseko A taldean, gol gutxien jaso duen atezaina (12 gol).



Ligan, gol gutxien jaso duen atezaina (8 gol).



Lehen fasean, B taldean gol gutxien jaso dituen atezaina (15 gol).

Herri kirolak eta erromeriak izan ziren San Pedron nagusi

Bukatu dira aurtengo San Pedro bailarako jaiak eta hona hemen asteburuan zehar burutu ziren zebait ekintzen berri. Larunbateko gaupasaren ostean, igandean, pilota partiduak, ahari jokoak eta idi-demak ikusteko aukera izan zen. Ermuko Peñak hazitako aharien borrokaldi ikusgarriak izan ziren goizez; segidan eskuz binakako pilota partidua

jokatu zen. Etxeberria eta Salegi bikoteak 22-21 irabazi zion Osoro eta Loiolari. Arratsaldean ididemak burutu ziren. Berritxuko Artadialde izan zen irabazlea, honen idiak 54 plaza eta laurden bat betetzea lortu zuelarik. Bigarren Eibarko Altzubarren izan zen, 53 plaza eta 3 motz eginez eta hirugarren Itziarko Ixama sailkatu zen 48 plazarekin.



AITOR ZABALA

■ ■ Ermuko Peñak hazitako ahariak borrokan izan ziren San Pedron.

Argazki erakusketa Kultur Etxean

Datorren ostiralean, hilak 14, Ongarri Argazkilaritza Taldeak antolatutako erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean. Joseph Esclusa Bartzelonako argazkilariren erretratuak egongo dira ikusgai, zuri-beltzekoak eta Himalayako biztanleei ateratakoak. Esclusa Bartzelonako "Institut de Estudis Fotografics" izeneko eskolan irakaslea da eta argazkilaritzan esperientzia handiko profesionala da. Hilaren 29a izango da erakusketa bisitatu ahal izateko azken eguna.

Deba Beheko gida Kultur Etxean


DEBEMEN, DEBEGESA eta Deba Beheko Udalek argitaratutako Deba Beheko herriei buruzko turismo gida eskuragai dago Kultur Etxean. Bertan herri bakoitzeko inguruneak, kirola egiteko aukerak, jaiak eta beste zenbait datu interesgarri agertzen dira. Lau hizkuntzatan argitaratu da gida: euskaraz eta gaztelaniaz bat, eta ingelesez eta frantsesez bestea.



Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

ESOZIA JATETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.
Zugandik oso gertu!*



UDA Unibertsitatean



Udako Euskal Unibertsitatearen XXIII. Udako Ikastaroak uztailearen 17tik 29ra bitartean burutuko dira Iruñeko Larraona ikastetxean. Ikastaro hauek edozeini irekiak dira, bereziki euskaldun unibertsitarietara zuzenduta dauden arren. Aste bitan zehar, makina bat mintegi, praktika, jardunaldi eta emanaldi izango dira, goizez eta arratsaldez. Horiekin batera, iluntze eta gauetan kultur ekitaldiak eta saio osagarriak izango dira.

Ikasle asko eta asko joaten da urtero Iruñeara. Giro jatorrean, ikasteaz gain, bestelako ekitaldietan ere parte hartzeko aukera izaten da. Lau arlotan banatzen dira ikastaroak, hala nola, Arteak eta Komunikazioa, Giza eta Gizarte Zientziak, Hizkuntzalaritza eta Zientziak. Horietan, beste batzuen artean, Antzerkilari-tza, Musika, Antropologia, Ekonomia, Sexualitatea, Zuzenbidea, Glotodidaktika, Itzulpen-gintza, Fisika eta Informatika landu daitezke.

Matrikulei dagokienean, ikasle eta langabetuentzat astebeteko ikastaroak 8.000 pta.ko

kostua dute eta egoitzak eta otorduak 10.000 pta. Bi astez joan nahi duenak 15.000 pta. ordaindu behar ditu ikastaroagatik eta 19.000 pta. egonaldi eta otorduagatik. Gaietarako astebeteko ikastaroarengatik 26.000 pta. eta bi astekoarengatik 46.000 pta. ordaindu beharko dute. Matrikulazio epea ekainaren 30ean amaitu zen. Halere, norbaitek izena eman badu eta bere poltsikotik ordaindu, irailean agiria aurkeztuz gero, Elgoibarko Udalak ikastaroen matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntzak ematen ditu, informazioa nahi izanez gero Euskara Zerbitzura jo behar delarik.

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Kafetegia

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Salerosketak

2. eskuko VESPA 200 edo antzerako motorra erosiko nuke.

☎ 74 40 62 Agustin

Ohe egiten diren 3 sofa, terraza mahai bat eta 4 aulki fundekin saltzen ditut. Aukera paregabea!

☎ 74 21 20 - 74 23 98

Soziedaderako bigarren eskuko SUKALDE ELEKTRIKO BAT salgai dago. 8 plaka + laba. Neurriak: 190 x 0,90 x 0,85

☎ 74 23 02 Juan Cruz

FORD FIESTA SS-N bat saltzen dut. Egoera onean. Aukera paregabea!

☎ 58 40 01 (Koldo)

gaueko 9etatik aurrera

Etxebizitzak

Lau pertsonantzako PISU BAT ALOKATU nahi genuke irailetik aurrera.

☎ 65 38 76 Aloña

Alcoceber-en APARTAMENTU BAT daukat alokatzeko (irailean)

☎ 74 22 08

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN. Amueblatua.

☎ 78 19 50

LOGELA BAT ALOKATZEN DUT.

☎ 74 24 06

Apartamentu bat alokatzen dut ALCOCEBERen.

☎ 74 21 86

Lana

FRESISTA BAT BEHAR DA. Baldintzak: FP II edo berdintsua eta euskara.

☎ 74 12 97 - 74 06 64

NESKA UESKALDUN BAT behar dugu Irailetik aurrera etxeko lanak eta bi ume zaintzeko.

☎ 74 38 41 (Pili)

Deitu 13,00 - 16,00 eta 20,00tik aurrera.

TABERNAN orduka lan egiteko NESKA EDO MUTIL BAT behar dugu. (sukaldeko lanak ere bai)

☎ 74 25 95 Mertxe

Gizonezko bat behar da kristalak garbitzeko.

☎ 74 26 77 Setatik aurrera deitu "Kalamua Coop."

Emakume euskaldunak etxeko eta sukaldeko LANAK EDO NAGUSIAK ZAINDUko lituzke. 17 urteko esperientzia eta kotxeko karneta.

☎ 74 23 30 (Eusebi)

TITULUDUN ERIZAIN EUSKALDUNA, etxeetara erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.

☎ 74 02 33 Marta Diego Arrieta (Erizain diplomatua)

Partikularrak

Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin OHO eta REMeko klase partikularrak ematen ditu. Euskaraz eta erdaraz.

☎ 74 39 24 Maite

SOLFEOKO KLASEAK emango ditut uztailean. Maila guztiak.

☎ 74 24 95 Ainara

Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko, lana aurreratzeko.

☎ 74 04 11

Enpresa zientzietan lizentziatuak KONTABILITATEKO INTENTSIBOA emango du uztailean. Maila guztiak. Talde mugatuak.

☎ 74 03 95

Bestelakoak

Elgoibarren lanean diharduen injineruak FAMILIA EUSKALDUN BATEAN astelehenetik ostiralera bitartean BIZI NAHI DU. Lo egin, arropak garbitu eta otorduak..

☎ 74 33 04

Donostian pisua osatzeko 2 pertsona behar dira.

☎ 47 02 32 Miren

Caritas-ek OHE bat eta SUKALDERAKO ARMAIRU bat behar du.

☎ 74 15 09 / 74 12 57

Neska gazte kuadrila batek San Bartolome jaietarako LOKAL MERKE BAT ALOKATUko luke.

☎ 74 32 56

Okerreko aterkia hartu nuen King-Kong-eko jangelan edo Gorbean. Neurea urdin marinoa da eta okerrekoa marroia.

☎ 74 01 73

Agurrak

Hilaren 8an urteak beteko dituen Maider Diezi ZORIONAK eman nahi dizkiogu bere guraso eta ahizpak

Aste honetan urteak egingo dituzten Ander eta Inigori ZORIONAK! bere gurasoen partez.

Agur bero bat CHELTENHAMera ingelesa ikastera joan diren Elgoibarko neska-mutilei. Ondo pasa eta asko ikasi!

Hildakoak

- ▶ Luis Angel Jonin Garcia, 43 urte (Ekainak 4)
- ▶ Juan Aizpiri San Martin, 77 urte (Ekainak 6)
- ▶ Florencia Garate Arrizabalaga, 83 urte (Ekainak 7)
- ▶ Mari Cruz Arriola Exposito, 75 urte (Ekainak 9)
- ▶ Juan Santiago Aizpitarte Lete, 78 urte (ekainak 10)
- ▶ Ladislao Zabaleta Azurmendi, 69 urte (Ekainak 11)
- ▶ Mari Carmen Iglesias Aboitiz, 43 urte (ekainak 11)
- ▶ Constantino Romera Perez, 67 urte (Ekainak 18)
- ▶ Maria Arrieta Etxabe, 74 urte (Ekainak 19)
- ▶ Dominga Urkidi Zenarruzabeitia, 88 urte (Ekainak 19)
- ▶ Mari Carmen Arrillaga Irusta, 76 urte (Ekainak 23)
- ▶ Modesta Agirregoikoa Gabilondo, 95 urte (Ekainak 25)
- ▶ Jose Angulo Castillo, 64 urte (Ekainak 25)
- ▶ Maria Arozena Unzueta (Ekainak 25)
- ▶ Rosa Mari Riaño Arozena (Ekainak 25)

Jaiotakoak

- Felix Conde De Frias (Ekainak 3)
- Idoia Hildago Monreal (Ekainak 6)
- Asier Agirregomezkorta Unamuno (Ekainak 12)
- Haritz Igartua Santaren (Ekainak 17)

Ezkondutakoak

- Jaione Olazabal eta Julen Masach (ekainak 24)

7 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Parque Jurásico"

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

8 LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Gaia: Jaiak

✓ Zazpikiko lokalean

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Los Picapiedra"

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

9 IGANDEA

10,00 II. MOUNTAIN BIKE TRABESIA

✓ Irteera eta helmuga Mintxetan

Antolatzailea: Udal Kirol Zerbitzua

10,00 ARRANTZA TXAPELKETA

Beduako errekan (Zumaia)

Antolatzailea: La Unión Elkartea

10 ASTELEHENA

9,30 UDALDIAN 95, UDAL EKI IREKIAK

OHOko 3., 4. eta 5. mailakoentzat

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

14 OSTIRALA

19,00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Egilea: Joseph Esclusa

Gaia: Himalayako biztanleak

Antolatzailea: Ongarri

✓ Kultur Etxean

Hilaren 29a arte

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Speed"

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
8, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
9, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
10, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
11, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
12, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
13, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
14, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo


OKINDEGIA:

9, igandea: ZABALETA

A I R E

L I B R E K O

Z I N E A



Parque Jurásico

Spielberg-en azken super-produkzioa. Agure aberats batek eltxo batean topatutako dinosaurioen ADNtik abiatuta, Jurasiko garaian desagertutako dinosaurioak haztea lortuko du. Animaliontzako parke natural bat eraikiko du leku zoragarri batean. Parkea ireki aurretik, ordea, dena gainbegiratu beharra dago. Eginkizun horretan dabilzala, zerbait larria gertatuko da.



"Los Picapiedra"

Zuzendaria: Brian Levant
Antzezleak: John Goodman, Elizabeth Perkins, Rick Moranis, Rosie O'Donnell.

Pablok semea adoptatu du, Bam Bam izenekoa. Adopzioan izandako laguntza eskertu nahi dio Pedrori. Rajuela Co. izeneko harrobian egiten dute lan biek eta presidenteordea aukeratu behar dute. Pablok bere azterketa sartzan du Pedrori zegokion sobrea eta honela, presidenteorde aukeratuko dute Pedro. Baina gauzak okertu egingo dira Risco Vandercuerva eta Agata Cristal izeneko pertsonaia maltzurrek hargin guztiak kaleratzeko garabi erraldoi bat asmatzen dutenean.



Ogia osasuna da



Olaso ind.15, 55. Pab
Tel. (943) 74 21 37
San Frantzisko, 21
Tel. (943) 74 26 52



San Frantzisko, 4
ELGOIBAR
Tel. 74 07 35

IBARRENEA
Okindegia

IBARRENEA
BASERRIA
Sallobente auzoa, 7
Tel. 74 24 44



Bernardo Ezenarro, 1
San Bartolome, 6
Tel. 74 33 92
ELGOIBAR



Kafetegia
okindegia
San Frantzisko, 17
Tel. 74 05 33